

M.A.R.E.A. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Gu Shirley, Leire, Unai eta Aitziber gara, Leioako Barandiaran institutuko 2. Batxilergoko ikasleak, eta gure proiektua aurkezten dizuegu.

Hasieran, taldeko kide bakoitzak ideia desberdin bat proposatu zuen: euria biltzeko eta garbitzeko gai zen kiosko bat sortzea ura edangarri bihurtzeko, edo objektuen trukea sustatzeko gune bat diseinatzea ekonomia zirkularra bultzatzeko.

Hala ere, ondorioztatu genuen planetak kutsadura murrizteko konponbide aktibo bat behar zuela, eta horrela sortu zen gure azken ideia: hondartzetako eta kostaldeko herrietako zikinkeria jasotzeko gai den robot autonomoa.

M.A.R.E.A. izenak gure ideiarene balioak eta funtsa islatzen ditu:

M: Makina

A: Autonomoa

R: Robotikoa

E: Ekosistemarentzat

A: Arazketarako (edo Garbiketarako).

M.A.R.E.A.-k “ekosistemekin lan egiteko eta garbitzeko makina robotiko autonomoa” esan nahi du. Robotak sentsoak eta kamerak erabiltzen ditu hondakin desberdinak identifikatzeko eta barneko konpartimentuetan automatikoki sailkatzeko. Gure helburua da kostaldea modu eraginkor, jasangarri eta teknologikoan garbitzea, natura babestuz eta gizartearen ingurumenaren zaintzaren garrantziaz kontzientziatuz. Gainera, bildutako hondakinekin birziklatutako produktuak sortuko ditugu, ekonomia zirkularra lortzeko.

